



GARI GARAIALDE

Argazkian, Donostiako Intxaurren auzo parean gertatutako istripua.

Bi pertsona hil dira euskal errepideetan auto istripuz

Ezbeharrak Donostian eta Erreniegan gertatu dira

Erredakzioa / Donostia

Bi lagun zendu ziren atzo euskal errepideetan izandako auto istripuetan. Ezbeharretako bat Donostiako saihe-bidean izan zen, eta bestea Erreniega mendatean (Nafarroa). Idiazabalen, berriz, gazte batek zauriak izan zituen autoarekin kamioi bat jo ostean.

M.II.D. 30 URTEKO iruindarra zendu zen atzo Donostiako saihebidetan, istripuz. Ezbeharra goizeko 11:30ak inguruan gertatu zen, Intxaurren auzoaren parean. Donostiako matrikula zeraman Daewoo Lanos autoa errepidetik irten zen, oraindik argitzeke dau-den arrazoiak direla eta.

Ezbeharra gertatutako lekura berehala heldu ziren

sorospen zerbitzukoak, baina ezin izan zuten ezer egin. M.II.D. iruindarraren gorpua Polloeko Institutu Anatomiko Forentsera eraman zuten autopsia egiteko.

Ezbeharraren ondorioz, Behobiarako norabidea itxi, eta auto guztiak N-1 errepidetik bideratu zituen Ertzaintzak.

Erreniegan, berriz, lagun bat hil eta beste hiru zauritu

ziren. Ezbeharra arratsaldeko 13:00ak inguruan gertatu zen, bi autok aurrez aurre jo zutenean.

Idiazabalen 24 urteko gazte bat zauritu zen

A.E.A. 24 urteko azpeitiarra zauritu zen atzo Idiazabalen ezbeharrez. Istripua Idiazabalerako eta Segurarako bideek bat egiten duten lekuan gertatu zen, goizeko 08:00etan. Nafarroako matrikuladun Talbot Horizon batek eta Iveco kamioi batek aurrez aurre jo zuten. Kamioia bidean gurutzatuta gelditu zen. Zauritua Zumarragako ospitalera eraman zuten.

laburrean

■ Gipuzkoako Medicus Mundik kooperazio sistemako aldaketak iragarri ditu egoitza berriaren aurkezpenean

GIPUZKOAKO Medicus Mundi erakundeak bere kooperazio sistema berriaren gaineko argibideak eman zituen atzo, egoitza berriaren aurkezpen ekitaldian. Mikel Apalategi erakundeko kideetako batek esan zuen, «Hegoaldeko lurraldeetara baliabide ekonomikoak bidaltzetik hemen bertan kontzientzia aldaketa eragingo duten ekintzak egitera pasa behar dugu». Apalategiren esanetan, «pobrezia ez da kontu egitea, desoreka sortzen duten balore multzoa baizik». *Medicus Mundi aldatzera doa, eta zu? izango da kanpaina berri horren leloa.* Gipuzkoako Medicus Mundik atzoz geroztik egoitza berria du Donostian, Serapio Mugika kaleko 33. zenbakian.

■ Afrika Etxea Gobernu Kanpoko Erakundeak etorkinen hezkuntzarako egoitza zabaldu du Erriberri

AFRIKA ETXEA Gobernu Kanpoko Erakundeak (GKE) etorkinen hezkuntzarako egoitza zabaldu du Erriberri (Nafarroa). Egoitza horrek harrera etxe moduan funtzionatu du. Garai batean Frantziskotarren eskola izan zen eraikinean dago egoitza berria. Azken lau hilabeteetan 30 boluntario inguru aritu dira eraikina zaharberritzen. Dirua -1,5 milioi pezeta guztira (60.000 libera)- erakundeko bazkideek, bolondresak eurek eta inguruko enpresa eta erakundeak jarri dute. 750 metro koadro ditu egoitza horrek, eta azken orduko ukitu batzuk eman ostean guztiz prest izango dela esan zuten atzo Erakundeko arduradunek.


■ Hurbilerraztasunaren gaineko jardunaldiak antolatu ditu Nafarroako Gutxitu Fisikoen Erakundeak

NAFARROAKO Gutxitu Fisikoen Erakundeak hurbilerraztasunaren gaineko jardunaldiak antolatu ditu datorren aste bukaerarako. Gutxitu Fisikoen hirian barrena ibiltzeko dituzten oztopoak zeintzuk diren jakinaraztea da jardunaldion helburua. Halaber, arazook konpontzeko irtenbideak ere proposatuko dira. Jardunaldietan edonork parte hartu deza-keela argitu zuen atzo Erakundeak. Hilaren 25ean goizeko 09:30ean egingo da aurkezpena Iruña Park hotolean.

■ Gaur martxan jarriko den Sondikako terminal berriak lau milioi bidaiari ingururi emango die zerbitzua

IRAGAN asteartean Espainiako Felipe Borboikoa printzeak zabaldu zuen Sondikako terminal berria gaur jarriko dute martxan. Usoa izeneko terminal berria 32.000 milioi pezeta (1.280 milioi libera) kosta da, eta Santiago Calatrava arkitek-tuak diseinatu ditu lanak. Terminal berriak urtean lau milioi bidaiari ingururi emango die zerbitzua, orduko 3.000 bidaiari. Terminal berriak 39.000 metro koadroko eremua hartzen du. Calatravak diseinatutako aparkalekuak eta terminal egoitza ditu Usoak. Irteerako lekura -7.000 metro koadro di-tuen hall-a- bost bideko zubi baten bidez iristen dira bidaiariak.

2001 Agenda



BILINTX PAPER DENDA
BILINTX MEGADENDA
HONTZA LIBURU DENDA
GARAZI LIBURU DENDA
ERNAITZA LIBURU DENDA
STOP LIBURU DENDA
HIRE LIBURU DENDA
IRATZAR LIBURU DENDA
MIRENTXU LIBURU DENDA
ETXEPARE, BILINTX LIBURU DENDA
MASILLO, GONZALO LIBURU DENDA
AYERBE LIBURU DENDA
GOROSTIZA
LETE LIBURU DENDA
OLEARSO LIBURU DENDA
BERTSO HOP, BILINTX MEGADENDA
GERRIKO LIBURU DENDA
APATXO LIBURU DENDA
IBARRONDO LIBURU DENDA
BAGA BIGA LIBURU DENDA

DONOSTIA
DONOSTIA
DONOSTIA
DONOSTIA
ANDOAIN
ANDOAIN
ARRASATE
AZKOITIA
BEASAIN
BERGARA
DEBA
EIBAR
ELGOIBAR
HERNANI
HONDARRIBIA
IRUN
LAZKAO
LEGAZPIA
OÑATI
ORDIZIA

SALMENTA LEKUAK:

XENPELAR KULTUR DENDA
BILINTX TOLOSA
LIZARDI LIBURU DENDA
KIRIKIÑO LIBURU DENDA
URRETINDORRA LIBURU DENDA
VERDES LIBURU DENDA
EGUNKARIAK LIBURU DENDA
MILOS PALENZUELA LIBURU DENDA
BLOK LIBURU DENDA
HITZ LIBURU DENDA
AMILOTX LIBURU DENDA
ARALDE LIBURU DENDA
BILLIKEN LIBURU DENDA
ARRIAGA MEGADENDA
AXULAR LIBURU DENDA
ABARZUA LIBURU DENDA
AUZOLAN LIBURU DENDA
XALEM S.L.
XALBADOR LIBURU DENDA
MATTIN MEGADENDA

ERRENTERIA
TOLOSA
BILBO
BILBO
BILBO
BILBO
ALGORTA
BARAKALDO
BASAURI
DURANGO
GERNIKA
LEKEITIO
AMOREBIETA
GASTEIZ
GASTEIZ
IRUÑEA
IRUÑEA
IRUÑEA
IRUÑEA
BAIONA

Egunkaria